

Kaka, txiza eta ispilua

Juanjo, mami handiko gai batekin egin duzu topo, eta ez dakit konturatu zaren. Txinako komun publikoetan besteen ondoren egin behar omen duzula kaka diozu; baina, aizu, hemengo komun publikoetan, gizonezkoa bazara, ez al duzu txizarik egin behar besteen ondoren, batere pribazitaterik gabe? Halaxe kontatu didate niri, behintzat.

Auzi honen inguruan artikulu interesgarri bat irakurri nion Beatriz Preciado filosofo *queerari*. Sarean duzue eskuragai eta gomendatzen dizuet (izenburua, aski esplizitua: *Basura y Género. Mear/Cagar. Masculino/Femenino*). Bada, Preciadok komun publikoak aztertzen ditu genero-teknologiaren eragile diren heinean, eta zera esaten du, argi eta garbi: komun publikoak genero zainketarako kabinak direla. Alegia, premia fisiologikoak bultzatuta baino gehiago, geure generoa konfirmatzeko premiak bultzatuta jotzen dugula komun publikoetara. *Boutade* bat dirudi, baina adi.

Alde batetik, generoaren arabera klasifikatzen zaituzte –G edo E, praka edo gona, kapela edo pamela, bibotea edo ezpainmargoa– eta beti egongo da norbait ate zuzena aukeratu duzun edo ez zainduko duena, eta atentzioa deituko dizuna transgresioren bat bururatzen bazaizu (esperientziaz dakit hori). Gizon edo emakume gisa dagokizun espazioaren ezaugarriak ere desberdinak izango dira kasuan kasu. Emakumeentzat konpartimentutan banatutako komunak egongo dira, besteen bistatik kanpo –ez ordea, besteen belarri edo sudurretatik aparte–. Kaka zein txiza hor egingo ditu emakumeak, jarrera berean. Gizonek, ordea, berezita izan ohi dute solidoa eta likidoa. Kaka pribatuan egiten da, besteen begiradatik salbu. Txiza, ordea, anaitasun maskulinoan, zakil dantzatza publikoan. Genitali-



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Apalategi

Olasagarre

tatea, harrotasunez. Analitatea ezkutuan, zer gerta ere.

* * *

Baina komunetako paretak jausten ari dira, pribatua eta publikoaren arteko hesiak bezalaxe, egia da. Eta literatura aurkezten duzu horren eredu, Juanjo. Auto-fikzioa, hitz magikoa. Egia da modan dagoela, baina ez dut uste genero berria denik. Zuk ere ohartarazi diguzu. Ez al zuen ba auto-fikziorik egiten Marguerite Duras-ek, orain dela 50 urte? Edo, areago, Marcel Proust-ek orain dela 100? Berria izan daiteke etiketa, baina norberaren buruaz idaztea egiazkotasun eta fantasiaren muga horretan jolastuz, ispiluarekin solastatzen... hori berria ote?

Ni ez naiz auto-fikzio zalea, bide batez esanda. Eta ez gaizki ulertu: izugarri interesatzen zait jendearen bizitza pribatua. Etxe arrotz batean nagoenean, beti saiatzen naiz kaxoi eta armairuetan arakatzen. Despistatu aurpegia jarri, baina beti daukat belarria gertu, autobusetako elkarrizketei adi. Lagunak komunera egindako ihesaldia –berriz komuna, ez galdetu zergatik– sms-en errebisioa egiteko aprobe txatu ohi dut. Eta tira, hobe dut isiltzea, ez baitut arazo legalik nahi.

Haatik, etxeko jabeak esango balit: aurrea, ireki kaxoi horiek, begiratu argazkiak, lantandu nire barruko arropa tolestua... Edo autobusean norbaitek bere penak kontatu nahiko balizkit, besotik helduta... Edota sms

bat ailegatzen zaion bakoitzean, lagunak irakurraldi publikoa egingo balu... Bada, ez da gauza bera. Aitzitik, kontrakoa litzateke. Seko aspertuko nintzateke, seguru. Ezkutatzen delako interesatzen zait bizitza pribatua. Ezkutatzen duenagatik interesatzen zait fikzioa. Ispilu aurrean jarrita ere agertzen ez den horregatik. ■



Emakumeentzat konpartimentutan banatutako komunak

daude, besteen bistatik kanpo. Gizonek, ordea, txiza,

anaitasun maskulinoan egiten dute, zakil dantza

publikoan. Genitalitatea, harrotasunez.

Analitatea ezkutuan, zer gerta ere

